

ELEIZA KATOLIKUAREN KATEZISMOA

«Eleiza Katolikuaren Katezismo» liburua, aurtengo «best-seller» dogu. Ez bakarrik emen baita munduan zear be. Berreun milla aletik gora Españan, iru egun barru, saltzea mirari bat dirudi. Iñondiko markak birrindu ditu. Ta orrelaxe beste nazifioetan be.

Baegon olako liburu baten premiña. Orain dala urte batzuk, Kontzilioaren 20. urteurrena ospatzeko, Erroman egin zan Sinodoan, Aita Santuari egindako gurari larria orixe izan zan. Ainbeste mezuren eta egoeraren artean, sentitzen zan Katezismo unibertsal baten bearrizana.

«Eleiza Katolikuaren Katezismo» barri au, katolikuon batasunari eta alkartasunari deika datorku. Orixen da Aita Santuaren asmoa be: «Eleiz artzain eta fededun guztiei eskatzen dautset, arren bai arren, katezismo au komunino eta batasun ispirituz artu dagiela, eta erabili dagiela beti fedea iragarteko eta Barrionaren bizitzarako deia eskeiniko dabenean. Erreferentzi testu ziur eta jator lez emoten jake katezismo au doktrina katolikuaren irakaspenerako eta, aparteko eran, eliz-barrutietako katezismoak eratzeko».

Onuragarria da olako fede bilduma bat. Txalotzekoa da Eleizak liburu onegaz egiten dauskun mesedea. Ez bakarrik katoliko garanoi baita ez diranei be. Ondo egongo litzake, beste

erlejiño talde guztiak be, bai euren onerako eta besteen onerako, Eleiza Katolikuaren antzera, euren doktriña argi eta garbi eskeintzea. Beti bezela, Eleizak garbi erakutsi dausku ez dala or illunpetan dabillen beste «sekta» bat. Serbitzu ederra, benetan, Eleizak mundu guztiari liburu onen bidez egiten dautsona.

Aparteko katezismoa

Eleizaren historian zear, makina bat katezismo izan dira. Baiña bat bera be ez ain apartekoa. Katezismo onen izena bera be egokia dau: «Eleiza Katolikuaren Katezismoa». Ez da onen edo aren katezismoa, Eleiza osoarena baiño. Eleiza osoko gotzain guztiak artu dabe parte baita Unibertsitate Katolikuak be. Ainbat idazketa barri egin ondoren, Aita Santuaren sinadura be badau. Eztago beste liburu bat, orrenbeste jendek parte artu dabenik. Emendik begiratuta be, aparteko liburua danik ezin ukatu. Zer esanik ez, edozein teologoren irakatsiei baiño askotaz be geiago zor dautsagula.

Orain eskuetan daukagun katezismo barria ez da lenengoa, eta, zorionez, ez da izango azkenengoa be. Badau, aspaldion an eta emen, argitaratu diranen itzura. Esaterako, Holandako Eleizak, Kontzilioa amaitu ondoren argitaratutako katezismoa. Onek be sortu ebazan bere iskanbillak baina oso baliotsua. Ni neuri asko lagundu daustana. Gaiñera, zorionez, eskuratuta daukagu berau.

Badira beste batzuk be antzekoak. Alemaniako Eleizarena, adibidez. benetan ederra. Nire gustokoena be berau da. Biblia aldetik, duda barik, aberatsena. Pedagoji aldetik, oster, egokiena Frantziako Eleizak argitaratu dabena. Edozer gai irakurri ta ausnartzeko, bai bakarrik eta bai taldeka, bide egokiak dakaz. Españako Eleizaren Katezismoaren zatirik ederrena, lenengoa. Salbamen Historiaren Kontaera, benetan, interesgarria eta klaru-klarua. Edozeinek erraz ulertu leikena. Katezismo au be, zorionez, euskeratuta daukagu. Oso baliagarria bai gazteen eta bai elduen katekesirako. Bada beste katezismo bat be oso atsegiña eta erraz irakurtzen dana. Estilo aldetik beste oneek baino arintasun

geiago dau. Beljikako Eleizak argitaratua da. Gustora erabili izan dot sarritan.

«Eleiza Katolikuaren katezismoa» dogu konpletuena. Osoena. Bere iturriak oparoak ditugu: Biblia santua, Eleiz-Gurasoen doktrina, Eleizaren-magisteritza, Liturgiaren arnasa, Araudi Kanonikoa, Santuen esperientzia. Orrexeek dira Katezismo barri onen iturri garbiak.

Aipatzekoa da beste apartekotasun bat be. Katezismo barriaren jatorrizko testua ez da latinez idatzi, frantsesez baiño. Orain arte, Eleiz Katolikuaren garrantzizko agiri nagusiak, beintzat, latinez idazten ziran. Ta latinezko lenengo berbakin ezagutzen ditugu agiri orreek. Esaterako, «Pacem in terris», «Rerum Novarum», «Mater et Magistra», «Gaudium et Spes», «Populorum, progressio» eta abar.

Baita eskertzekoak dira, Katezismo onen aurkibideak, be. Ez bakarrik aurkibide orokorra, baita gaien eta izen guztien aurkibideak be. Edozer gai aztertu edo edozein testu aurkitzeko, itzelean laguntzen dabez aipatutako aurkibideak. Noiz ikusiko ete dogu Katezismo barria gure euskera maitagarrian? Benetako oparia izango litzake!

Santu karmeldarrak

Beste katezismoetan baiño garrantzi geiago daukee, katezismo barriari, santuen esperientzi ederrak. Euron artean lau karmeldar agertzen dira. Santa Teresa, San Juan Kurutzekoa, Santa Teresita eta Elisabet de la Trinité doatsua. Lenengo biak ezpañarrak. Beste biak, ostera, frantsesak. Santa Teresaren lau testu dakaz. San Juan Kurutzekoarenak iru. Santa Teresitarenak sei eta Elisabet doatsuarenak bat bakarrik. Lau atal andi ditu Katezismo barriak. Bigarreanean izan ezik, beste guztietan ageri dira karmeldar santuen esperientzi sakonak.

Lenengo atalean, Jesukristoren paregabeko postua esateko, San Juan Kurutzekoaren pentsamentu ederrenetariko bat dakar:

«Jainkoak, bere Semea, bere Itza eta Itz bakarra dauana emon dauskunean, dana batean eta bein eta betiko esan euskun Itz bakar orretan eta eztauka beste esatekorik. Len zatika profetei esan eutsena orain osorik esan dauskula, bere Semea, guztia dana, emon euskunean. Beraz, orain Jainkoagana itaunka joan edo zerbait barri ikustea edo iragartea gura leukenak, ergelkeria ez eze, irain egingo leuskio Jaunkoari, beste gauza barririk edo beste ezer jakin guraz ibilli barik Kristogan begiak ez ipiniaz» (65. zenb.).

Biblia Santuko zatirik inportanteena, lau ebanjelioak dirala adierazteko, Santa Teresitaren esperientzi aberatsa aipatzen dau:

«Ebanjelioa da danen gaiñetik, otoitzean asetzen nauana; ementxe aurkitzen dot arima gaixoak bear dauan guztia. Argi barriak aurkitzen dodaz bertan, esangura ezkutuak eta misterioitsuak» (127. zenb.).

Jaungoikuaren eskuetan geure uste ona ipinteko, Santa Teresaren bertso famatuak dakaz:

«Etzaite kezka,
etzaite izukor,
dana da igazkor,
Jainkoa da aldakaitz,
eroapenak
oro jaðesten;
Jauna daukonak
guztia dauko.
Jainkoa soil naiko» (227. zenb.).

Guztion elburu nagusia, Irutasun Deunagan bizitzea da. Orretarako Elizabet de la Trinité doatsuaren otoitz au aitatzen dau katezismoak:

«Ene Jainko, gurtuten zaitudan Irutasun Deuna, lagun zakidaz neure buruaz bene benetan aizturik, zeure maitasunean egokitu daiten sakon eta bakeitsu nire arimeak gaurtik artegatasunik izan ez daian, eta Zugandik ezek be aldendu, alda-ezin orrengandik

unez-unera zeure Misterioan sakonago barrendu baiño. Baketu nire arima: Egizu bera zure zeru, zure egonleku kutuna, zeure atsedean gozoa, eta nik ez zaidala iñoiz be bakarrik itxi, bete-betea Zeugan egon baiño, fedez beterik eta baketan, zeure betiko sortze gurgarritan». (260. zenb.).

Santutasun bidean, maitasuna besterik ez da nagusi. Santu guztien barnean orixe da ukatu eziñezko egi biribilla. Santutasunaren ardatza or dagola gogoratzeko, Santa Teresitaren testu famatu au dakar:

«Ulertu neban, Eleizeak gorputz bat baekukan, atal askok osotua, bear-bearrezkoenak, guztietatik beifienak ezin uts-egin, biotz bat eukala, eta biotz au MAITASUNEZ IZETUTA egoala. Ulertu neban Eleizaren atalei maitasunak eragiten eutsela eta maitasuna itzaliko balitz, apostoluak ez leukiela nai Ebanjeliorik otsegingo, martiriak ez leukiela odolik jarion nai izango... Ulertu neban MAITASUNAK DAUKAZALA BERAGAN DEI GUZTIAK; MAITASUNADALA GUZTIA; ALDITA TOKIGUZTIAK BERAGAN ARTZEN DAUAZALA... BERBA BATEN BETIKOA DALA» (828. zenb.).

Santuen bitartekotasuna eta urkotasuna erakusteko, Santa Teresitaren beste testu sonatu au aitatzen dau:


«Nire zerua, lurrekosi faguntzen igaroko dot» (956. zenb.).

Eriotzaren azken berbea ez da ezereza, egiazko bizia baiño. Santa Teresaren eta Santa Teresitaren esperientzia ori azaltzen daukue; lenengo testua Santa Teresarena da, ta bigarrena Santa Teresitarena:

«Jainkoa ikustea nai dot eta orretarako bearrezkoa jat iltea» (1.011. zenb.).

«Ni neu ez naz ilten, egiazko bizitzan sartzen naz» (1.011. zenb.).

Jaungoikoaren epaiketa maitasunezko epaiketa izango da. San Juan Kurutzekoaren pentsamentu zoragarri onek ez dauku besterik agertzen:



«Arratsaldean maitasunean aztertuko zaitue» (1.022. zenb.).

Amatau ezizteko itxaropenaz bultzatuta jokatu bear dogu. Ona emen Santa Teresaren dei itxaropentsua:

«Itxaron, itxaron, ez dakizu noiz izango dan eguna eta ordua. Adi egon, dana bereala igaroten da. Naizta zure gogo biziak egiazko gauzak zalantzan jarri, eta epe laburra luze. Zenbat eta burrua geiago euki, ainbat eta maitasun andiagoa agertuko dautsazu zeure Jainkoari, eta ainbat geiago gozatuko zeure Maiteaz amairik izango ez dauan gozotasunaz eta maitasunaz» (1.821. zenb.).

Gure meritoak, Jaungoikuaren grazia eta errukia besterik ez dirala azaltzeko, Santa Teresitaren «Maitasun Errukitsuaren Eskintza» famatuaren zatitxo bat dakar:

«Lur-gaiñeko erbesten ostean, Aberrian Zeugaz atsegintsu biziko nazala uste dot, baiña ez neunke zerurako meriturik pillatu gura, lan egin nai dot bakar-bakarrik zuere maitasunarren... Bizitza onen arratsaldean, zeure aurrean aurkeztuko naz esku utsik, Jauna, ez dautsut eskatzen ba nire lanak kontuan izatekorik. Gure justizi guztiak orbanak daukiez zure begien aurrean. Zeure Justiziz jantzi gura dot, ba, ezta zeure maitasunetik artu Zeu-Zeu zarean betiko jaubetza». (2.011. zenb.).

Katezismoaren laugarren atalean, otoitza da gai nagusia. Eta otoitza zer dan erakutsi naian, Santa Teresaren eta Santa Teresitaren definizio zoragarriak dakaz. Santa Teresarena oso ezaguna dogu:

«Gogozko otoitza ez bait da besterik, nik uste, adiskidetasun artuemonak eukitea baiño, askotan alkarregaz bakarrik egonaz maite gaituala dakigunagaz (2.709. zenb.).

Santa Teresitarena be oso biotz barnetik urteten dautson definizioa da:

«Otoitza, niretzat biotzaren zirkun bat dozu, begirada samur bat dozu, pruebaren erdian, poztasunaren erdian lez» (2.558. zenb.).

Otoitz bidean badira maisuak. Beti be maisurik onena, otoitz esperientzia daukona izango da. Entzun San Juan Kurutzekoari:

«Kristau bidean aurrera egitea nai dabenak, konturatu bearra dauko zeinen eskuetan jarten daben bere burua, zelako maisua alako ikaslea; zelako aita alako semea. Arima zuzendaria ez bakarrik jakintsua eta zuurra baita esperientziduna be izan bear dau... Arima gidariak espirituzko bizitza esperientziarik ez badauko, ez da gauza izango arima orreek Jaingoikuagana eroateko. Ez ditu ulertu be egingo» (2.690. zenb.).

Euskaldun bat bakarrik

Euskaldun bat besterik ez da ageri Katezismo osoan. Bera Loilako Inazio santua dogu. Euskalerrian sortutako gizonik famatuena munduan zear. Iru bider aipatzen ditu Katezismo barriak Loiolakoaren pentsamentuak. Irugarren atalean, Jaungoikuaren bigarren agindua azaltzean, ona emen Inazioaren kontseju ederra:

«Ez zin egin Egilleagaitik, ez egifagaitik ere, egiaz, bearrez eta lotsaz izan ezik» (2.164. zenb.).

Zortzigarren aginduaz ari danean, besteen gauzak alde onetik begiratzea eskatzen dau Katezismoak. Ta orretarako Inazioaren oso ezaguna dan testua ipinten dauku begien aurrean:

«Kristau on danak prestuago izan bear dabela lagun urkoaren proposizioa onartzeko txarto artzeko baiño. Ezin onartu badau, galdetu begio zelan ulertzen daben, eta txarto ulertzen badau zuzendu bai maitekero eta naikoa ez bada, bide egoki guztiak billatu beiz ondo ulertu eta salbau daiten» (2.478. zenb.).

Kristau izatea ez da azalean geratzen dan gauza bat. Kristau izateak barne-barnetik, biotzeko begiekin Jesus ezagutu eta onartzea eskatzen dau, Loiolako Inazioaren otoitza onelakoa zan:

«Jauna barne ezagutu dagidala» (2.715. zenb.).

Katezismoaren beste merito askoren artean, santuen inportantzia berreskuratzea izan da. Santuak ditugu Eleizaren fruturik ederrenak. Teologia bera be santuen premiña gorrian daukagu. «Teologia gorengo maillan egon da, teologuak eurak santuak izan diranean. Teologiaren ondamendia, santu ez diran teologoengandik sortu da». Ez jako arrazoirik falta, Hans Urs von Balthasarri.

Andoni Olea